

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2038/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, ontziek sortutako kutsaduraren aurkako borrokan Itsas Segurtasuneko Europar Agentziak daukan jardueren urte anitzetarako finantzazioari buruzkoa, eta 1406/2002/EE Erregelamendua aldatzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : *Reglamento (CE) n° 2038/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, relativo a la financiación plurianual de la actuación de la Agencia Europea de Seguridad Marítima en el ámbito de la lucha contra la contaminación por los buques, y por el que se modifica el Reglamento (CE) n° 1406/2002 (Diario Oficial de la Unión Europea, L 394 de 30/12/2006, pg. 1; Corr. Error. L 30 de 3/2/2007, pg. 12)*

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2038/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, ontziek sortutako kutsaduraren aurkako borrokan Itsas Segurtasuneko Europar Agentziak daukan jardueren urte anitzetarako finantzazioari buruzkoa, eta 1406/2002/EE Erregelamendua aldatzen duena

(Testu egokia EEeri dagokionez)

## EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 80. artikuluko 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Kontsulta egin diote aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari,

Itunaren 251. artikulua araututako prozedurari jarraiki <sup>(2)</sup>,

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kostaldeko estatuen artean egindako aldeko hitzarmenek eta eskualdeko hitzarmenek —esaterako 1992ko Helsinkiko Hitzarmenak eta 1976ko Bartzelonako Hitzarmenak— xedatzen dute, itsasoa kutsatzen duen istripurik izanez gero, estatuek elkarri lagunduko dietela.

(2) 1406/2002 (EE) Erregelamenduak <sup>(3)</sup> xedatutakoaren arabera, Itsas Segurtasuneko Agentzia Europarra sortu zen (aurrerantzean "Agentzia"), itsas segurtasun-maila handia, uniformea eta eraginkorra lortzeko, eta, era berean, ontziek sortzen duten kutsadura prebenitzeko.

(3) 724/2004 (EE) Erregelamenduak 1406/2002 (EE) Erregelamendua aldatu zuen, eta Agentziari betebeharrak agindu zizkion, kutsaduraren prebentzioaren esparruan. Horrez gain, ontziek sortutako kutsadurari aurre egiteko lanak xedatu zizkion, Europako Erkidegoko uretan istripu larriak gertatu izan baitira —besteak beste, *Erika* eta *Prestige* petrolio-ontzienak—.

(4) Prebentziorako eta kutsadurari aurre egiteko lan berri horiek egin ahal izateko, Agentziako administrazio-kontseiluak ekintza-plan bat onartu zuen 2004ko urriaren 2an, hidrokarburo bidezko kutsaduraren prebentzioaren eta horren aurkako borrokaren esparruan. Agentziak esparru horretan egin beharreko jarduerak zehazten ditu planak, eta Agentziak eskura dituen baliabide ekonomikoek ahalik eta erabilera onena eman nahi die (aurrerantzean, "jarduera plana").

(5) Ekintza-planak xedatzen du kutsaduraren aurkako esparruan, informazio-, lankidetzaz- eta koordinazio-jarduerak egin behar direla, eta, batez ere, laguntza operatiboa eman behar zaiela estatu kideei, horiek alde aurretik eskatuta, ontzi osagarriak emanez, kutsaduraren aurka egiteko. Era horretan, hidrokarburoek eta bestelako sustantzia kaltegarri eta arriskugarriek sortutako kutsadurari aurre egiteko laguntza jasoko lukete. Agentziak arreta berezia eman behar die eremu sentikor gisa sailkatutako eremuei; betiere, alde batera utzi gabe laguntza behar duten beste eremuei eman beharreko laguntza.

(6) Agentziak esparru horretan jarduerak abian jarri arren, kostaldeko estatuek ere kutsaduraren aurka borrokatzeko mekanismo egokiak edukitzeko ardura dute, eta halaber, esparru horretan, bete egin behar dituzte estatu kideen artean eta estatu-taldearen artean dauden lankidetzaz-hitzarmenak.

Istripu baten ondorioz itsasoa kutsatuko balitz, Agentziak laguntza eman behar die kaltetutako estatu kideei, garbiketa-lanen gidaritzaz daramatenen agintepean jarritz.

(7) Ekintza-planak xedatutakoa betetz, Agentziak lan egingo du satelite bidezko irudien zerbitzu zentralizatua garatzeko, eta, horren bidez, itsasoa zaintzeko, kutsadura sortu duten ontziak identifikatzeko eta kutsadura garaiz detektatzeko.

Sistema berri horri esker, datu gehiago eskuratu ahal izango dira ontziek sortutako kutsadurari aurre egiteko, eta ondorioz, egingo den lana askoz ere eraginkorragoa izango da.

(8) 2001/792/EE, Euratom <sup>(4)</sup> Erabakiak xedatutakoaren arabera, Agentziak laguntzarako baliabide osagarri horiek eman behar dizkie estatu kideei, Europako Erkidegoan babes zibilaren esparruan laguntza emateko dauden esku-hartze mekanismoaren bidez. Istripuen ondorioz gertatutako itsas kutsaduren kasuan ere eman behar du laguntza hori.

(9) Ekintza-plana zehatz-mehatz aplikatzen dela bermatu eta ontziek sortutako kutsaduraren prebentzioa eta haren aurkako borroka sustatzeko, Agentziak, kutsaduraren aurkako egungo jarduerak garatzeaz gain, finantzaketa-sistema bideragarri eta errentagarri bat eduki behar du, bereziki, estatu kideei laguntza operatiboa emateko.

(10) Beraz, bermatu egin behar da Agentziak nahikoa finantza-baliabide izango dituela kutsaduraren aurkako esparruan agindu zaizkion lanak eta antzeko lanak egiteko; betiere, urte anitzeko konpromisoa oinarritzat hartuta.

Indarreko prozeduren bidez zehaztu behar da Europako Erkidegoak urtero egin beharreko finantza-ekarpena.

---

<sup>1</sup> EO C 28, 2006.2.3koa, 16. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006eko irailaren 5koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa.

<sup>3</sup> EO L 208, 2002.8.5koa, 1. or. Erregelamendu horri azken aldaketak egin dizkio 724/2004 (EE) Erregelamenduak (EO L 129 2004.4.29koa, 1.or)

<sup>4</sup> EO L 297, 2001.11.15koa, 7. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(11) Kutsaduraren aurkako borroka finantzatzeko erabili behar diren diru-kopuruak, egungo finantza-esparruaren arabera, 2007 eta 2013 urteen arteko epeko estaltzeko balioko du.

(12) Beraz, diru-hornidura bat aurreikusi behar da ekintza-plana epe horretan aplikatzeko.

(13) Ontziek sortutako kutsaduraren aurka bete beharreko lanak egiteko Agentziak behar duen gutxieneko zenbatekotzat joko da diru-hornidura hori.

(14) Konpromisoen esleipena optimizatu eta ontziek sortutako kutsaduraren aurkako jardueretan egin daitezkeen aldaketak kontuan hartzeko, jarduera-esparruan dauden premien jarraipen etengabea egin behar da, urteko konpromiso finantzarioak egokitzeko.

(15) Horrenbestez, Agentziako administrazio-kontseiluak, zuzendari exekutiboak egindako txostenean oinarrituz, urteko aurrekontuei buruzko konpromisoak berrikusi behar ditu, Agentziaren aurrekontuetan beharrezkoak izan daitezkeen egokitzapenak egiteko. Horiek horrela, 1406/2002 (EE) Erregelamendua aldatu behar da, adierazitako ildoan.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Xedea**

Itsas Segurtasunerako Agentzia Europarraren aurrekontuari Europako Erkidegoak egin beharreko diru-ekarpenei buruzko xedapen zehatzak ezartzen ditu Erregelamendu honek. 1406/2002 (EE) Erregelamenduko 2. artikulua agintzen dizkion lanak egiteko erabiliko du aurrekontu hori; hau da, ontziek sortutako kutsaduraren aurkako lanak egin eta lan horiekin lotutako zereginak betetzeko.

### *2. artikulua*

#### **Definizioak**

Erregelamendu honetan, kontzeptuok esanahi hau izango dute:

- a) "Agentzia", 1406/2002 (EE) Erregelamenduaren arabera sortutako Itsas Segurtasunerako Agentzia Europarra izango da.
- b) "Eskualde-hitzarmenak", kostaldeko estatuen artean adostutako alde biko eta eskualde-hitzarmenak, itsasoa kutsatzen duten istripu edo gertakaririk izanez gero, elkar laguntzeko adosten direnak.
- c) "Hidrokarburoak": petrolioaren haren forma guztietan, baita petrolio gordina ere, fuel-olioa, lohiak, petrolio-hondakinak eta produktu finduak, 1990eko Hidrokarburo bidezko Kutsaduraren aurkako Lankidetzak, Prestakuntza eta Borrokari buruzko Nazioarteko Hitzarmenak xedatutakoari jarraiki.
- d) "Substantzia kaltegarriak eta arriskutsuak izan daitezkeenak": hidrokarburoez besteko substantzia batzuk dira, baldin eta, haiek itsasoan sartzean, arriskugarriak izan badaitezke gizakien osasunarentzat, eta itsasoko flora eta fauna biziarentzat, aisiarako pizgarriak murrizten baditu, eta itsasoaren bidezko beste erabilera batzuk oztopatzen baditu. Definizio horrek aintzat hartu behar du Substantzia Kaltegarriak eta oso Arriskutsuak izan daitezkeen substantzien bidezko Kutsaduraren aurkako Lankidetzak, Prestakuntza eta Borrokari buruzko Protokoloa, 2000. urtean onartutakoak.

### *3. artikulua*

#### **Aplikazio-eremua**

1. artikuluan aipatutako diru-ekarpina emango dio Europako Erkidegoak Agentziari, eta horren xedea izango da ekintza-planak eta haiekin lotutako programek xedatutako lanak finantzatzea; eta, bereziki, hauek guztiak egitea:

- a) informazioa ematea, praktika, teknika eta berrikuntza onak bilduz, aztertuz eta hedatuz, besteak beste, andelak husten direla zaintzeko tresnei buruzko informazioa, ontziek sortutako kutsaduraren esparruan jarduteko;
- b) Kasu bakoitzean dagozkion eskualde-mailako hitzarmenen jarduera-esparruan, lankidetzak eta koordinazioa ematea, estatu kideei eta Batzordeari laguntza zientifiko eta tekniko emanaz;
- c) laguntza operatiboa ematea, alde aurretik hala eskatu duten estatu kideei baliabide osagarriak emateko; esaterako, kutsaduraren aurkako ekipoak eta ontziak. Laguntza hori itsasontziek istripuz edo borondatez eragindako kutsadurak gertatzean emango da, estatu kideek kontaminazioaren aurka egiten dituzten jarduerak laguntzeko.

### *4. artikulua*

#### **Europako Erkidegoko finantziak**

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

3. artikuluan aipatutako diru-kopurua 154.000.000 euro izango da, eta 2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31 bitarteko eperako erabiliko da.

Aurrekontu Agintaritzak urteko kredituak zehaztuko ditu, haiek finantzaketa-esparrura egokituz. 3. artikuluko c) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, bermaturik izan behar du estatu kideei eman beharreko laguntza operatiboaren finantzaketa.

### 5. artikulua

#### **Baliabideen inbentarioa**

Laguntza operatiboaren esparruan bete behar diren baldintzak zehazteko —esaterako, Agentziak estatu kideei eskaini beharreko kutsaduraren aurkako ontzi osagarri kopurua zehazteko—, aldian behin, Agentziak Europar Batasuneko eskualdeetan kutsaduraren aurka eskuragarri dauden mekanismo publiko eta pribatuen zerrenda bat egingo du.

### 6. artikulua

#### **Europako Erkidegoaren finantza-interesak babestea**

1. Batzordeak eta Agentziak, Erregelamendu honen arabera finantzatutako jarduerak egiten direnean, Europako Erkidegoaren finantza-interesak babestuta daudela bermatuko dute, eta, horretarako, iruzurraren, ustelkeriaren eta legez kanpoko gainerako jardueren aurkako prebentzio neurriak hartuko dituzte. Neurri horiek ezartzean, egiaztapenak egingo dira, eta behar ez bezala ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko dira. Irregularitasunik hautemanez gero, zigor eraginkor, proportzionatuak eta disuasiozkoak aplikatuko dira, Kontseiluaren 2988/95 (EE, Euratom) <sup>(1)</sup> eta 2185/96 (EE, Euratom) <sup>(2)</sup> Erregelamenduek, nahiz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 (EE) Erregelamenduak <sup>(3)</sup> xedatutakoari jarraiki.

2. Europako Erkidegoaren ekintzak eta Erregelamendu honen bidez finantzatutako izanik, arau-urratzeak izango dira, 988/95 (EE, Euratom) Erregelamenduko 1. artikuluko 2. paragrafoak xedatutakoaren arabera, Europako Erkidegoaren zuzenbideko edozein xedapen urratzea, edo eragile ekonomiko batek, ekintzez edo ez-egitez, kontratuzko betebeharrak ez betetzea, baldin eta urraketa horren helburua, gastu bidegabe baten bidez, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari edota Europar Batasunak kudeatutako aurrekontuei kalte egitea bada.

3. Batzordeak eta Agentziak, beren betebeharren esparruan, Erregelamendu honetan xedatutako programa betetzean, kostu eta irabazien arteko harreman orekatua mantenduko dela bermatu beharko dute.

### 7. artikulua

#### **Aldaketak 1406/2002 (EE) Erregelamenduari**

Aldaketa hauek egingo zaizkio 1406/2002 (EE) Erregelamenduari:

(a) idatz-zati hau gehituko zaio 10. artikuluko 2. paragrafoari:

«(1) k) idatz-zatian aipatzen den finantza-plan xehatua berrikusiko da, baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 891/2006 (EE) Erregelamenduak(\*) —Itsas Segurtasunerako Agentzia Europarrak ontziek sortutako kutsaduraren aurka egin beharreko jardueraren hainbat urteko finantzaketari buruzkoa— xedatutako aurrekontu-konpromisoak ere. Erregelamendu honetako 15. artikuluko 2. paragrafoko g) idatz-zatian adierazitako txostenari erreparatuta egingo da hori guztia.

Erregelamendu honetako 18. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, Agentziaren hurrengo finantza-ekitaldiko diru-sarrera eta galerei buruzko egoeraren estimazioak eskuragarri daudenean egingo da berrikuspena.

(\*) EO L 394 2006.12.30, 1. or. »

(b) 15. artikuluko 2. paragrafoan, idatz-zati hau gehituko da:

«(g) urtero, urtarrilaren 31 baino lehen, Agentziak kutsaduraren aurkako borrokari eta prestakuntzarako egindako planaren finantza-

<sup>1</sup> Kontseiluaren 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamendua, 1995eko abenduaren 18koa, Europar Erkidegoetako finantza-interesen babesari buruzkoa. (EO L 312, 1995.12.23koa, 1. or.)

<sup>2</sup> Kontseiluaren 2185/96 (Euratom, EE) Erregelamendua, 1996ko abenduaren 11koa, Batzordeak Europako Erkidegoen finantza-interesak bermatzeko eta iruzur nahiz irregularitasunen aurka in situ egin beharreko kontrol eta egiaztapenei buruzkoa (EO L 292, 1996.11.15koa, 2. or.)

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 (EE) Erregelamendua, 1999ko maiatzaren 25ekoa, Iruzurraren Aurkako Europako Bulegoak (OLAF) egindako ikerketei buruzkoa. (EO L 136, 1999.5.31koa, 1. or.)

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

exekuzioari buruzko txosten bat aurkeztuko dio Batzordeari eta Administrazio Kontseiluari, eta, txosten horren arabera, finantzatutako ekintza guztien egoera eguneratua ere aurkeztuko du. Batzordeak, halaber, txosten hori bidaliko die, bai Europako Parlamentuari, bai 2850/2000/EE erabakiko 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki sortutako komiteari, eta bai 2001/792/EE Euratom erabakiko 9. artikuluan aipatutako komiteari, horiek guztiek egoeraren berri izan dezaten».

### *8. artikulua*

#### **Bitarteko ebaluaketa**

Agentziak Erregelamendu honen aplikazioari buruzko txostena bidaliko dio Batzordeari, eta azken horrek Europako Parlamentura eta Kontseilura bidaliko du txostena, beranduenez, 2010eko abenduaren 31n. Txosten hori Agentziako administrazio-kontseiluaren funtzioak eragotzi gabe osatuko da, eta bertan, 4. artikuluan aipatutako Europako Erkidegoaren diru-ekarpenen erabileraren emaitzak bilduko dira; hain zuzen ere, 2007ko urtarrilaren 1a eta 2009ko abenduaren 31 arteko epean egindako konpromiso eta gastuei buruzkoak.

Txosten horretan oinarrituta, Erregelamenduari aldaketak egitea proposatuko du Batzordeak; betiere, ontziek sortutako kutsaduraren aurkako borrokan egindako aurrerapen zientifikoak kontuan hartzeko. Aintzat hartuko dira, besteak beste, hidrokarburoak eta substantzia kaltegarriak nahiz arriskutsuak izan daitezkeenak sortutako kutsaduraren esparruan egindako aurrerapenak.

### *9. artikulua*

#### **Indarrean sartzea**

*Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Erregelamendu hau.

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrean betetzekoak eta zuzenean aplikagarriak izango dira estatu kide guztietan.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

*Europako Parlamentuaren izenean*  
*Lehendakaria*  
J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean*  
*Lehendakaria*  
J.-E. ENESTAM